



**ORRI-MARKATZAILE  
SOLIDARIOAK**

15. edizioa 2023

**FITXA DIDAKTIKOA**



**Save the  
Children**



**Izena**

**Solomiia**

**Adina**

**9 urte**

**Herrialdea**

**Ukraina**

**Ametsa**

**Gerra amaitzea da nire ametsa.**

## **EZAGUTU ZERTXOBAIT GEHIAGO SOLOMIAREN BIZITZA**

“Gerra amaitzearekin amesten dut, guztion gure etxeetara itzuli nahi dugu”. Solomiaren bizitza, 9 urterekin soilik, asko aldatu da azken hilabeteetan. Kostaldean zegoen jaioterria, Berdiansk, utzi eta familiarekin batera Ukrainako gatazka-guneetatik urrun joan behar izan zuten.

Bere desiorik handiena hainbeste bizitza, berea barne, aldatu dituen gerra amaitzea da, eta bere etxea zen eremu babestura itzuli ahal izatea da. Orain, Haurrentzako gune lagunkoian, gatazkarengatik tokiz aldatu diren haurrak ez ezik, inguruan bizi diren haurrak ere joaten dira, lagun berriak egin ditu eta jolastu eta lasai egon daiteke, nahiz eta kezka atzean uzten erraza ez izan: “seguru sentitzen naiz hemen, baina gauean sirena-hotsak entzuten ditut eta ezin du lo hartu. Eta hori arazo bat da. Kezkatuta nago, eta nire ama ere kezkatuta dago.”

“Margotzea eta marrazki bizidunak ikustea gustatzen zait, eta nire jolas gogokoena errelebolasterketak dira. Hasieran uste nuen ez nuela lagun berririk egingo, baina lagunak egin ditut eta nire anaia txikiarekin ere jolasten dut”

Save the Children-ek abian jartzen dituen espazio horietan, galdu duten babes hori sentitzen dute neska-mutilek, eta langile espezializatuiei esker, sentitzen dutenaz hitz egiten has daitezke, triste eta kezkatuta daudela, etxeari buruz pixka bat hitz egiten dute, zer botatzen dute faltan, etxera itzuli nahi dutela.

Ukrainaren kokapen geografikoa dela eta, historian zehar beti gune estrategikoa izan da; duela urtebete baino gehiago hasi zen gerra herritarrek bizi dituzten tentsioen eta milaka neska-mutilei eragiten duten beste kapitulu bat besterik ez da. 2014an tentsioak gogortu egin ziren eta Save the Children orduz geroztik ari da lanean herrialdean.

Proposatzen dizkizuegun **jarduera hauen bidez**, egun batetik bestera bizitza aldatu zaien eta berriz ere lehen bezain seguru noiz izango diren ez dakitela babesgabe dauden milaka neska-mutilen egoerari buruz sentsibilizatu nahi ditugu zuen ikasleak.

Jarduera horiek egin eta gero, gelan atera diren ideiekin eta ikasleek egindako hausnarketekin **apain ditzakezue orri-markatzaileak**. Orri-markatzaileak pertsonalizatzeko modua lagungarria izan daiteke orri-markatzaileetako protagonisten antzeko neska-mutilei buruz gelan ikusi dutena familiako kideei kontatzeko.



## HELBURUAK

- Irakurmena sustatzea proposatutako bizitza-historien bidez
- Inguratzen dituzten ingurunea ezagutzea, beste ingurune batzuekin konparatuta.
- Ikerketa-tresnak sustatzea
- Irakurmena eta idazmena bultzatzea, proposamen didaktikoen bidez.
- Elkartasunaren balioa sustatu eta garatzea ezagutzaren bidez, eta praktikara eramatea eguneroko ekintzetan.

Proposamen hauek ikasleen ikasketa-mailaren arabera egiteko pentsatu dira, baina zuen taldera hoberen egokitzeko moduan molda ditzakezue.



## HAUR-HEZKUNTZA

Irakasleak Solomiiaren historia irakurtzen edo kontatzen dio taldeari, eta non sentitzen diren babestuta galdetuko die ikasleei. Ziurrenik etxean edo eskolan erantzungo dute, inguruan helduak, familia eta irakasleak dituzten, zaintzen dituzten eta babesten dituzten tokiak direlako. Etxea utzi beharko balukete, Solomiiak eta beste haur askok utzi behar izan zuten moduan, bertan bizitzea jada segurua ez delako, triste eta beldurtuta sentituko lirateke. Horregatik, taldeak, elkarlanean, seguru sentitzeko marrazki bat egitea proposatzen dizugu, eta iruzkintzeko.

## LEHEN HEZKUNTZA

Orain dela hilabete batzuk Solomii bizi zen etxea marraztu ahal izan bazenute, zuen etxearen oso antzekoa izango zen; alabaina, familiarekin batera etxea utzi behar izan zuenetik, ez daukate leku bera, beste familia eta haur batzuekin partekatu behar dute, eta jada ez da gauza bera.

Marraztu nolakoa den zuen etxea eta nola uste duzuen dela Solomiiaren etxea. Aldatu da?, lehen zuen moduan, berarentzako bakarrik leku bat dauka?, bere auzoa desberdina da?, zer dauka inguruan? eta zuk?

Norberaren ingurua eta Solomiiaren ingurua marraztu eta gero, gure usteak partekatuko ditugu, eta babestuta sentitzeko toki seguru bat izatearen garrantzia nabarmenduko dugu, adibidez, Solomiiak Save the Children-en Haurren gune seguruan aurkitzen du segurtasun hori.

Ni bizi naiz...	Bera bizi da...
-----------------	-----------------

## BIGARREN HEZKUNTZA

Gerra-egoera batean haurrak babesteari buruz hitz egiten dugunean, pentsa dezakegu lehenengo gauza borrokarik ez dagoen toki batera aldatu nahi izaten dela, eta egia da, gobernuen arduretako bat dela zentzu horretan biztanleak babestea. Save the Children-ek maila desberdinetan jarduten du gatazka-eremuetan dauden neska-mutilak babesten saiatzeko, eta gure web-orrian aztertzeraz gonbidatzen zaituztegu, zein arlotan jarduten dugu ezagutzeko eta babesteko eskubide unibertsala betetzen zein ekintza egiten ditugun jakiteko.

# ESAN BAI BAKEARI

**Badakigu zein garrantzitsua den gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta elkarrizketan eta enpatian oinarritutako kultura bat bultzatzeko heztea.** Save the Children-en ekintzaren protagonista diren, mundua aldatzeko mobilizatzen diren eta elkartasunean, errespetuan eta bakearen kulturaren hezi diren ikasleengan sinesten du.

**Mobiliza zaituz ikasleekin  
apuntatu zaren ekintzak eginez.  
Ikastetxeen uholde bat behar dugu  
BAKEARI BAI ozen oihukatzen.**



**MUGITZEN BAZARA,  
MUNDUA ERE MUGITU EGITEN DA**



**Save the Children**